

Kopiatzea ez dago ondo, baina...

Denok dakigu kopiatzea edo plagiatzea ez dela etikoa, baina, hala ere, jendeak kopiatu egiten du. Aspalditik egiten den praktika denez, merezi ote du horri aurre egitea? Gai horren inguruan arituko gara jardura honetan.

Ariketa hauek egin ditzakezu:

- Gaian sartu eta ulermen-galderei erantzun.
- Kopiatzen dutenak izendatzeko lexikoa idatzi.
- Testua osatu, falta diren lexiko eta sintaxiarekin lotutako hitzak aukeratuz.
- Kopiatzearen eta plagiatzearen inguruko eztabaida egin.



1. Kopiatzen al zenuten?

Audioa entzun aurretik eta gaian sartzeko, komentatu ondokoarekin puntu hauek:

- Zure eskola-garaietan jendeak kopiatzen al zuen? Zu ere ausartu zinen inoiz?
- Zer iruditzen zaizu azterketetan kopiatzea?



<https://labur.eus/UlkQ6>



Entzun Eli Larrinaga irakasleak azterketetan kopiatzeari buruz ematen duen iritzia eta, entzundakoa kontuan hartuta, markatu ondorengo esaldiak egia ala gezurra diren.

	Egia	Gezurra
1. Eli Larrinagak aitortzen duenez, behin bakarrik kopiatu du azterketa batean.		
2. Karrera egiten ari zenean, letra larriz idazten zuen ikaskide batek azterketa kopiatu ahal izateko.		
3. EHUKo ikasleek dokumentu bat sinatzen dute, azterketetan eta egiten dituzten lanetan portaera etikoa izango dutela adierazteko.		
4. Gaur egun lehen baino zailagoa da azterketetan kopiatzea.		
5. Kopiatzea oso zabalduta dagoen arren, Elik uste du horri aurre egiteko ahaleginak merezi duela.		

2. Tranpatiak

Plagiatzen edo kopiatzen dutenak izendatzeko, hitz bat baino gehiago darabil Eli Larrinagak (izenburukoa eta beste sei hitz, hain zuzen ere). Nahi baduzu, entzun berriro aurreko orriko audioa eta idatzi audioan esaten dituenak.

tranpatiak,

3. Testua osatzen

Eli Larrinagaren testutik zenbait hitz edo hitz-multzo kendu ditugu, batik bat, lexikoarekin edo sintaxiarekin lotura dutenak. Osatuko al duzu testua, aukerarik egokiena eginez.

Tranpatiak

Bai, entzule, gaur aspaldiko bekatua aitortuko dizut. 13 urte nituenean **(1)** ahalegindu nintzen. Fisika-azterketara definizio bakarra eraman nuen, txiki-txiki idatzita papertxoan. Baina ez nintzen hura ezkutalekutik **(2)** eta erabiltzeko gai izan. Galdera hantxe zegoen: “Zer da dina bat?” Hori gutxi ez, eta andereño Genovevak zera bota zidan proba hartu zuenean: “Artega igarri zaitut, ez zenuen ba **(3)** izango?” Lehen eta azken aldia izan zen. Benetan: lehena eta azkena.

“Patetikoa” esan didate asteon, hura kontatu dudanean. Orduetik, kopiatuz tranpak egitearekin ikusi eta **(4)** kontaezinak dira. **(5)** daramadan bat aipatzearen, karrerako lehen mailako lehen azterketan parean eseri zitzaidan ikaskideak maiuskulaz –letra larriz– erantzuteko eskatu zidan; bestela, ezin zuela niretik ulertu eta kopiatu. Lotsabako lapurra, bizkarroia, parasittoa, harrapakaria... Lastima!, ez niola halakorik esan.

Euskal Herriko Unibertsitateko ikasle berriek, iaztik, zintzotasunez eta portaera etikoz **(6)** sinatzen dute. Labur azaltzeko, ez dutela kopiatuko edo lanetan ez dutela plagiorik egingo adierazten dute idatziz. Dokumentuan badago abisua ere: kopiatzeak edo plagiatzeak euren espediente akademikoa larriki kaltetu dezakeela dio-eta.

Tira, asmo oneko adierazpen moduan primeran dago, baina eguneroko errealitateak bestelako panorama eskaintzen digu. Egoera ez da atzo goizekoa, gizakia gizaki denekoa dugu: tranpatiak betidanik izan dira, baita besteen **(7)** barra librean hartu eta **(8)** aurkezten dituztenak ere. Gainera, egungo gizartean teknologia berriekin zein eskura dagoen hemen moztu, hor itsatsi, eta listo! Nik sortua izan ez arren, nirea da.

Betidanik gertatu bada, zergatik kezkatu? Jokaera **(9)** bihurtu daitekeelako. Eta agian etzi **(10)** edota parasito lapurra izatea normalizat hartu eta **(11)** dabiltzanei patetiko deituko diegu. Hortaz, ez utzi biharko erremedioa jartzeko zeregina. Belaunaldi gazteenei zintzotasunez jokatzeko merezi duela erakutsi, heziketa bidez barreneko ahotsean atximurka eginez.

- (1)**
kopiatu
kopiatzera
kopiatzen
- (2)**
disimuluz atera
disimuluan ateratzen
disimuluarekin atereaz
- (3)**
txuletarik bat alderik alde
txuleta bat gainezka
txuleta bat aldean

- (4)**
bizi izan ditudan pasadizoak
bizi naizen pasadizoak
bizi zitezkeen pasadizoak
- (5)**
Noraezean
Iltzatuta
Buru gainean
- (6)**
portatzeko nahia
jokatzeko agiria
jolasteko konpromisoa

- (7)**
kezkak
inbidiak
ekarpenak
- (8)**
eurenak balira
eurenak direnez gero
eurenak balira bezala
- (9)**
izurritean
izurrite
kezkati

- (10)**
iruzurtia
xelebrea
jokaera
- (11)**
zintzo
gaizto
galdurik

4. Kopiatzearen alde ala kontra?

Jarri talde txikitan eta komentatu puntu hauek:

- Zer iruditzen zaizue EHUk hartu duen neurria: ikasleek agiri bat sinatzea, ez dutela kopiatuko edo plagiatuko adierazteko?
- Gure gizartean ondo ikusita al dago kopiatzea, plagioa egitea?

Eztabaida bat egingo dugu taldean: batzuk kopiatzearen eta plagiatzearen alde egingo dute, besteek, kontra. Elkartu ikuspuntu bera defendatu behar duzuenok eta saiatu argudioak pentsatzen edo idazten zuen ikuspuntua defendatzeko. Ondoren, elkartu binaka edo launaka eta ekin eztabaidari.

Esate baterako:

Kopiatzearen aldeko arrazoiak

- *Plagiatzeko ere ausardia behar da, badauka meritua.*
- *Batzuetan kopiatu gabe ezinezkoa da azterketa bat gainditzea.*
-

Kopiatzearen aurkako arrazoiak

- *Kopiatzea tranpa egitea da, ez da etikoa.*
- *Plagioa egiten dutenak besteen lana aprobetxatzen dute, iruzur egiten diote gizarteari.*
-



ERANTZUNAK

1. Kopiatzen al zenuten?

Egia	Gezurra
3-5	1-2-4

2. Tranpatiak

tranpatiak, bizkarroiak, parasitoak, harrapakariak, lotsabakoak -lotsagabeak-, lapurrak, iruzurtiak

3. Testua osatzen

- 1) kopiatzen
- 2) disimuluz atera
- 3) txuletaren bat aldean

- 4) bizi izan ditudan pasadizoak
- 5) Iltzatuta
- 6) jokatzeko agiria

- 7) ekarpenak
- 8) eurenak balira bezala
- 9) izurrite

- 10) iruzurtia
- 11) zintzo

TRANSKRIPZIOA

ELI LARRINAGA. Bai, entzule, gaur aspaldiko bekatua aitortuko dizut. 13 urte nituenean kopiatzen ahalegindu nintzen. Fisika-azterketara definizio bakarra eraman nuen, txiki-txiki idatzita papertxoan. Baina ez nintzen hura ezkutalekutik disimuluz atera eta erabiltzeko gai izan. Galdera hantxe zegoen: “Zer da dina bat?” Hori gutxi ez, eta andereño Genovevak zera bota zidan proba hartu zuenean: “Artega igarri zaitut, ez zenuen ba txuletaren bat aldean izango?” Lehen eta azken aldia izan zen. Benetan: lehena eta azkena.

“Patetikoa” esan didate asteon, hura kontatu dudanean. Ordotik, kopiatuz eta tranpa egitearekin ikusi eta bizi izan ditudan pasadizoak kontaezinak dira. Iltzatuta daramadan bat aipatzearen, karrerako lehen mailako lehen azterketan parean eseri zitzaidan ikaskideak maiuskulaz –letra larriz– erantzuteko eskatu zidan; bestela, ezin zuela niretik ulertu eta kopiatu. Lotsabako lapurra, bizkarroia, parasittoa, harrapakaria... Lastima ez niola halakorik esan.

Euskal Herriko Unibertsitateko ikasle berriek, iaztik, zintzotasunez eta portaera etikoak jokatzeko agiria sinatzen dute. Labur azaltzeko, ez dutela kopiatuko edo lanetan ez dutela plagiorik egingo adierazten dute idatziz. Dokumentuan badago abisua ere: kopiatzeak edo plagiatzeak euren espediente akademikoa larriki kaltetu dezakeela dio-eta.

Tira, asmo oneko adierazpen moduan primeran dago, baina eguneroko errealitateak bestelako panorama eskaintzen digu. Egoera ez da atzo goizekoa, gizakia gizaki denekoa dugu: tranpatiak betidanik izan dira, baita besteen ekarpenak barra librean hartu eta eurenak balira bezala aurkezten dituztenak ere. Gainera, egungo gizartean teknologia berriekin zein eskura dagoen hemen moztu, hor itsatsi, eta listo! Nik sortua izan ez arren, nirea da.

Betidanik gertatu bada, zergatik kezkatu? Jokaera izurrite bihurtu daitekeelako. Eta agian etzi iruzurtia edota parasito lapurra izatea normalizat hartu eta zintzo dabilzaneiz patetiko deituko diegu. Hortaz, ez utzi biharko erremedioa jartzeko zeregina. Belaunaldi gazteenei zintzotasunez jokatzeko merezi duela erakutsi, heziketa bidez barreneko ahotsean atximurka eginez.

